

Telebista pribatuen eragina programazioaren bilakaeran

Edorta Arana

Gizarte eta Komunikazio-Zientzien Fakultateko irakaslea da,
Euskal Herriko Unibertsitatean

Laburpena: Estatu espainiarreko telebista programazioan aldaketa ugari suertatu dira azken hamarkada honetan. Kanal publikoen monopolioa hautsi zenetik, telebista autonomikoen eskutik lehenengo eta pribatuen etorrerarekin gero, programazio parrilen bilakaera audientzia gehien eskuratu guran zentratu da. Borroka horretan prime-timea izan da esparrurik erabiliena eta bertan soma daitezke programazio estrategia aldaketarik garbienak. Estatu espainiarreko datu globalak erabiltzeaz gain, artikulua honetan Euskal Telebistaren kasua aztertzen da modu berezian.

Abstract: The Spanish television system have suffered many changes during the last decade. The launching of the television stations of the diverse autonomous areas, first, and the presence of the private stations, afterwards, have brought an earthquake in the previous situation. Now the prime-time is the battle field in the ferocious fight for rating points. This attitude have carried many changes in the contents of the programmes and, in general, in the programs scheduling of most of the television stations. We will study more in depth the case of the Basque National Television Stations, but always giving information about the general framework of the Spanish television panorama.

[Sarrera](#)

[1. Hasierako joeren bidetik](#)

[2. Arnasestuka](#)

[3. Euskal telebistagintza bikoizkotasuna](#)

[4. Konklusioa gisa](#)

[Erreferentzia bibliografikoak](#)

Sarrera

Artikulu honetan, amaitzear dagoen hamarkadan telebista parrilek egin duten bidea aztertzen da. Bertan, telebista pribatuen etorrerak eragin zuen lurrikararen ondorengoak jorratzen dira lehenengo, telebista publikoen eta pribatuen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ikusteko gero, beti ere, emisio osoa eta prime-timea erreferentzia gisa hartuz. Estatu espainiarreko datu globalak erabiliko diren arren, bigarren zati osoa Euskal Telebistaren kanal bien eskaintza aztertzeko erabiliko da¹.

1. Hasierako joeren bidetik

Telebista pribatuak heldu zirenetik geure artera, aldaketa ugari egon da telebistagintzaren munduan. Programa eskaintzari dagokionez, "behingoa betiko" esanez bezala, kanal desberdinen parriletan markatu zituzten aldaketak eta joerak mantendu eta finkatu egin direla esan daiteke. Euromonitor-en² datuak erabiliz Pradok, Huertas-ek eta Peronak (1992: 72-84) argitaratu zuten "España: nuevos modelos de programación" artikuluskun premonitorioak suertatu izan diren ideiak aipatzen dituzte.

Idazlan horretan, 1989-1991 bitartean eginiko neurketaldiaren emaitzak erabiliz, telebista pribatuak jaino aurreko eta ondoko lehen momentuak azaltzen dira. Datuen arabera, Estatu espainiarreko telebista kanal desberdinen eskaintzak hiru zutabe besterik ez zituen Fikzioa, Informazioa eta Haur zein Gaztetxoen programak. Fikzioari dagokion kopurua gainera, Antena 3, Tele 5 eta Canal + emititzeari ekin baino lehen, 1989an, %20ra heltzen bazen ere, pribatuak martxan jartzeak %45aren ingurura jaso zuen maila,

1991ean.

Informazio saioak, emisio orduen %20tik hurbil, sendo mantendu ziren kanal pribatuen etorrerarekin aldaketa handirik eduki gabe.

Haur zein Gazteei zuzenduriko programazioak bere lekua izan du beti telebista publiko monopolikoan baina gorako bidea hartu zuen pribatuen etorrerarekin. 1989an %11koa zen emisio orduen kopurua, urte bete beranduago, %13,5koa eta, 1991ean, %15aren bueltan jarri zen adin txikikoei zuzenduriko programazioa.

Emisioak hogeita lau ordutara zabaldu eta entretenigarriak pantailaratzeko joera (are eta nabarmenagoa prime-timean) ugaldtu egin zen kanaletan, aldiz, Kirolak portzentualki beherako bidea hartu zuen lehen urte horietan.

Audientzia modurik errazenean eta arinenean eskuratzeko norgehiagoka horretan, prime- timea bilakatu zen gainera joku-esparru preziatuena. Bertan areagotu egin ziren aipaturiko Fikzioaren presentzia baina baita ere Lehiaketena, Showena eta Infoshowena (talk show, reality show eta debate show).

Esaniko Pradok, Huertas-ek eta Peronak datuak eskaintzeaz gain, lehen urte horietan somatzen hasi eta gerora nagusitu egin ziren joerak zehaztu dituzten. Bost dira autore horiek aipatzen dituzten bide urratu-berriak:

- a) Programa asko asterokoak izatetik egunerokoak izatera pasatzen dira. Emisio- maiztasuna areagotzearen zergatia audientziaren fidelizazioa lortu guran dago.
- b) Programen iraupena luzatu egiten da eta logotipo eta aurkezle bera erabiliz "zirku karpa" gisa, azpian eduki zein genero desberdina duten zati heterogeneoak paratzen dituzte.
- c) Espektakularizaziorako bidea gero eta markatuagoa da eta genero guztiak hartzen ditu bere baitan. Programa mota desberdinen arteko mugak desagertu egiten dira eta Informazioa, Fikzioa, Showa eta Publizitatea konbinatu egiten dira ordura arte ez bezala. Gainera, programen tratamendu tekniko eta errealizazioa espektakularizazio horren esanetara jartzen dira.
- d) Aurkezle gisa aritzen diren izar berrien presentzia azpimarratu egiten da. Farandula mundutik etorritakoak edo telebistak berak sortuak, mediadore berri horiek programaren ardatza bilakatzen dira eta beraien nortasunean oinarritzen da saioaren itxuraketa osoa.
- e) Publizitateak pisu handia irabazten du eta, aldi berean, ugaritu egiten da hartuko dituen formak: publi-erreportajeak, programa barruan eginiko aipamenak, gain-inprimaketak, publizitate estatikoa, e.a. Telebista kanal pribatuen etorrerarekin hasi eta ondoren irmotu egin ziren joera hauek ez ziren kanal denetan modu berean eta kolpean eman baina guztietan barneratuz joan ziren lanerako eta kanalearen ustiaketarako filosofia berri gisa.

2. Arnasestuka

Telebista pribatuen eraginez, aurretik ez bezala, ahalik eta audientzia gehien eskuratu nahiak, laisterketa bizian jartzen ditu kanal guztietako programatzaileak. Errentabilitate ekonomikoa kontuan hartzen hasi eta, beraz, fakturazio publizitarioak gora egin dezan rating-ak eskeini behar zaizkie publizistei.

Sofres A.M.-ko³ datuek argiro erakusten dute komertzialtasun berriaren oinarriak sendotu egiten direla ondoko urteetan ere.

Emanaldiak gaua eta eguna betetzen duen garaian, Fikzioa da nagusi (luzemetriak, serieak zein telenobelak) eta hamar ordutik lau genero honi dedikatuak dira, beherako itxurarik gabeko bidean. Informazioari eskeinitako denbora kopurua %15era heltzeaz dago. Albistegiak, kanalaren ideologiaren elementu erreferentzialak izateaz gain, azken denboraldian ikus-entzuleak erakarri eta bertan mantentzeko erabiltzen dira. Kirola bestalde, erretransmisio eskubideen gudaren lekuko isila da, emisio orduen ehuneko ia bederatzia eskuratzen duelarik. Bost urteko ikuspegi honetan, amaitzeko, bi genero aipatuko ditugu: Kultura eta Miszelanea. Lehenak, bultzada handia eduki du dokumentalen eskutik, eta bigarrenak oso ondo erakusten du espektakularizazioak hartzen dituen formak. Miszelanea deritzon

multzoan kokatzen dira bereziki telebistarako sortu diren magazine, umore, barietate, "informazio larrosa" edota antzerako gaietako buruzko programak.

Izan ere, telebista kanal guztiak ez dira kopuru berberetsuetan mugitzen ezta gutxiago ere. Alde itzela dago kanal publiko eta pribatuaren artean eta bi multzo hauen baitan desberdintasunak ikus daitezke. Esate baterako kanal pribatuak Fikzioaren aldeko apustu garbia egin dute.

Fikzioaren garrantzia kanal pribatuetan handitu da, baina publikoek ere asko ugartu dutela filma eta tele-serien presentzia.

Bi genero ia erabat baztertua dituzte Tele 5ko eta Antena 3eko programatzaileak: Kultura eta Kirola. Arrazoi desberdinak direla medio, bi genero hauek telebista kanal publikoaren esparruan geratu dira (azpimarratu beharra dago Canal +en pisu handia duela Kirola eta, esaterako, 1997an, emisio orduen %19a heldu zela).

Eta, azkenik bi adibide bilakaera kotzajarria adierazteko beste horrenbeste generoen tratamenduan. Lehenean, Informazioan, kanal publikoek erakutsi dute interes berezia eta altu mantendu dute pantailatan albistegiak, erreportaiak eta berriekin zerikusia daukaten programen kopurua. Pribatuak, hasiera batean, bigarren mailakotzat hartzen bazuten ere genero hau, gaur egun denbora gehien eskuratzen duten lehen hiruren artean kokatu dituzte (1997an %15,3az).

Kontrako kasua da Miszelanea deitzen diren saioekin ez baitzuten toki gehiegirik lortzen kanal publikoetan (1993an %7,9a), baina orain, bost urte beranduago, emisio denboraren %12,4a eskuratzen dute. Esan beharrik ez dago, kanal pribatuetan, kopuru hori oso altu egon dela hasiera-hasieratik, eta egun ere 19,2an dagoela portzentaia. Ikusi ditugun datuak generoen egun osoko batazbesteko presentzia azaleratzen dute. Baina, jakina den bezala ordu guztiak ez dira berdinak eta ikus-entzuleak ordu ezagun batzuetan pilatzen dira nagusiki telebistaren parean. Ezin ukatu, 20.30 eta 24.00 bitarteko orduak, prime-timea deritzen tartekoak, direla telebistentzat, publikizistentzat eta ikusleentzat ere urrezko orduak.

"This time period generates most of network's image in the public eye, and prime-time ratings define a network's commercial value in the minds of advertisers" (Eastman eta Ferguson, 1997: 97)

"Evolución del prime-time televisivo en Cataluña: 1990-1995" (Peiró: 1998) titulupean buruturiko ikerketan, ordu garrantzitsu horien azterketa sakona egiten da. Bertan, besteak beste, Estatu espainiar osorako emititzen duten kanal pribatuak zein publikoak ikertzeaz gain Kataluniako telebista autonomikoaren afalosteko emisioa kontuan hartu da. Bost dira Mamen Peiró, lehiakortasuna nagusitu den prime-timean, aurkitzen dituen nabarduretatik azpimarratuko ditugunak:

a) Audentzia handiak lortu gurak parrilen homogenotasuna dakar ondorioz: kanal desberdinetan antzerako edukiak eta generoak ikusi ahal izatea, programatzaileek kontinuitate estrategia beretsuak erabiltzea, telebistaren diskurtsoa kopiatzea eta, azkenik, kanalez kanal ari diren protagonista mediatikoak sortzea.

b) Prime-timea denborapasa helburu duten saioez josia dago. Fikzioa nagusi den arren, Kirola, Showak eta Infoshowek berebiziko pisua dute afaldu eta oheratu arteko orduetan.

c) 20.30 eta 24.00 bitartekoan, kanal desberdinetako programatzaileek, publikoetakoek zein pribatuetaoek, estrategia beretsuak erabiltzen dituzte. Prime-timeari hasiera emango dion albistegiaren (programazio horizontala) ondoren Fikzioa (luzemetraia zein serieak direlarik) kokatzen da, programaketa sistema bertikalagoa agerian duen antolaketan. Ordu horietan kokatuko dituzten saioetan generoen arteko mugak ezabatuta daude eta Fikzioa, Informazioa, Lehiaketa eta Infoshowa non hasi eta non amaitu esaterik ez dagoelarik, nahaspilaturik agertzen dira programa berean.

d) Programak parrilan mantentzea ala ez rating (batazbesteko audentzia) puntuetan arrazoituko da eta horren ondorioa da ikus-entzulea erakartzeko gerra, zeinetan espektakularizazioa baita tresnarik erabiliena. Murriztu egin da programek parrilan irauten duten batazbesteko denbora, mugikortasun handia dago beraz.

e) Telebista kanal mota desberdinak definitu daitezke: Estatu mailan nagusitasuna eskuratu guran dabilzanak (TVE-1, Antena 3 eta Tele 5), nagusitu asmoz ari den baten osagarri gisa dabilena (TVE-2)

eta estatu osora baino esparru mugatuagorako emititzen dutenak (telebista autonomikoak)⁴.

3. Euskal telebistagintza bikoizkotasuna

Telebista pribatuek emititzeari ekin ziotenerako zazpi bat urte baziren Euskal Telebistaren euskarazko kanala martxan zela. 1986an hasi zen ETB-2, gaztelerez. Hizkuntza desberdinean ari diren bi kanal horiek emisio esparru bera dute, agintaritza berberaren menpe daude eta etxebizitza guztietara heltzeko ahalmena dute. Bigarren kanalak ordea, gaztelera duenez lan-tresna, ETB-1ek inoiz lortuko ez duen audientzia potentziala du. Hori eta lehen kanala euskararen zuzpertzeta eta normaltze lanerako jaio zela, ETB-2ri beste zeregin batzuk egotzi zizkioten⁵. Eztabaidagarria suertatu den "lan banaketa" eta atzetik duen jarrera filosofikoaren eraginez, programazio estrategietan eta, beraz, egunero gure pantailetara iristen diren saioretan ere desberdintasun nabariak daude⁶, ez bakarrik generoetan baizik eta programetan jorratzen dituzten edukietan.

Euskal Telebistagintza, zazpi⁷ kanaleko aukera duen merkatuan nola aritzen den eta, gero, lehen eta bigarren kanalean artean dauden erlazioak ikusiko ditugu ondoko lerrotan. Gainera, egun osoko eta prime-timeko orduetan ematen diren aldeak aztertuko ditugu, zelako desberdintasunak ematen diren azalduz.

Peiróren sailkapena aplikatuz, esparru mugatuagoan aritzen diren kanalak izanik ETBkoak, badirudi, bi eskaintzak elkar osatu egiten direla hainbat generoetan. Baina horrezaz gain, Estatu mailako gainontzeko kanalekin alderatu ezker, eta elementu bereizgarriak eduki arren, ETB-2 hurbilago dago batzbesteko telebista prototipotik. Euskarazko kanalak, bien arteko paper banaketa horretan, bereziagoa izatearena egokitu zaio.

3.1 Euskal Telebistaren lehen kanala

Euskara hutsez emititzeak ematen dio ETB-1i telebistaren munduan hain beharrezkoa izaten den marka bereizgarria. Baina ez da hizkuntzarena elementu bakarra. Pantailaratzen dituen generoak eta zenbateko pisua duen bakoitzak eguneroko emisioan eta prime-timean dira izaera propio horren beste elementu garrantzitsu batzuk.

Euskarazko telebista kanalak bi zutabe sendo ditu eta bigarren mailako hiru bere programazio parrilan. Fikzioa eta Kirola dira nagusi (azken urteotako emisio orduen erdia) eta gero datoz Kultura, Informazioa eta Miszelanea deiturikoak. Bost hauekin programazioaren %90aren ingurua beteta dago.

Estatu espainiarreko hainbat kanalek egiten dutenaren kontrara, genero ugaritasun markatua erakusten du ETB-1ek. Hala ere, esan beharra dago Sofres A.M.-k duen 13 generoko sailkapenean Zezenketek, Musikalek, Erlijo saioek edota Infoshowek oso leku gutxi dutela eguneroko emisioetan. ETB-1en genero nagusien bilakaera (egun osoko emisio orduen portzentaia) .

Azken urteotan nagusitu diren programatzeko joerek ez dute gehigizko eragina eduki ETB-1en. Bestalde, eta lehen aipatu dugunaren ildotik, prime-timea da kanal desberdinek audientziaren lehian gehien erabiltzen duten esparrua, bertan gauzatu izan dira azken urteotako aldaketa nabarmenenak. Urrezko ordu horietan ere, Euskal Telebistaren euskarazko kanalak berezitasunak agertzen ditu: ez du puzten Fikzioa ezta Miszelania ere. Kultura da apur bat ahultzen den generoa. Kontrakoa egiten du Kirolak, bera baita azken bi urte hauetan prime-timen harrotzen duten bakarra. Informazioak ere gorako bidea hartzen du 20.30 eta 24.00 ordu bitarte horretan, azken urte hau salbu aurrekoetan gora egin du nabarmen.

ETB-1ek nortasun propioa erakusten duen parrila bat du. Estatuko kanal gehienek ez bezala, genero ugaritasun gehiago dauka. Kirolean du bere bazarik garrantzitsuen, Fikzioarekin batera, baina ahaztu gabe Miszelanea, Kultura eta Informazioa. Prime-timean kirolzaletasuna eta Informazioa azpimarratu egiten dira beste generoen kalterako.

3.2 Gaztelerezko Euskal Telebista

ETBren lehen kanalari buruz esan dugunaren harira, gaztelerezko programazioak ere berezitasun batzuk baditu Estatu espainiarreko gainontzeko kanaleekin alderatuz. Hala ere, prime-timean sartzen garenean, audientzien norgehiagokak mimetismora bultzatzen du ETB-2ren parrila ere.

Fikzioa da gaztelera hutsez aritzen den Euskal Telebistaren generorik indartsuena, askogatik ere. Hamar ordutik lau eta piku izaten dira filmekin edo tele-seriekin beteak. Hiru aldiz txikiagoa da gainontzeko generoen partehartzea: Kultura, Informazioa eta Miszelanea.

Fikzioaren pisua eta nola Informazioak eta Kulturak puntutxo batzuk galtzen dituzten urteen poderioz. Aldiz, 1995tik aurrera, taulan agertzen ez den arren, Infoshowak sailkatzen dira portzentaia duinekin: 1997an, emisio orduen %11az. Prime-timearen itxura ez da egun osoko emisioaren berbera. Fikzioa lehen postuan egon arren, ondoren datorren generoaren ia denbora bikoitza eskuratuz, Informazio saioek ere leku polita daukate afalosteko orduetan. Infoshowek ere gorakada nabarmena dute ordu preziatu horietan, ondo matentzen da Miszelanea baina Kultura ia desagertu egiten da. ETB-2ko prime-timeak bere baitatik aldentzen ditu, erabat, Lehiaketa eta, nola ez, Zenzenketa edo Erljio programak. Musika ere hutsaren hurrengoa da.

Hogeita lau orduak eta prime-timeko portzentaiak alderatuz ikus daiteke zelako desberdintasuna dagoen programa eskaintzan. Egun osoko parrilan Fikzioak duen lehenetasuna ahuldu egiten da prime-timean, beti ere lehen postua galdu gabe. Leku gehiago uzten duenez, Informazioa jabetzen da denbora horretaz, egun osoan eskuratzen duena baino dexente gorago. Miszelanea eta Infoshowa indartu egiten dira gaueko ordutegian. Aldiz Kultura, egun osoko erreferentzian Estatu espainiarreko beste kanaletan ez bezala kokatua, denbora erdia galtzen du iluntzeko ordutegi garrantzitsuan. Kirolak paretsu segitzen du egun osoa zein prime-timea konparazio marko gisa hartuz: baju.

3.3. Bata besteari begira ote?

Telebista enpresa berak emitituriko programazioak izatetik, lehen ere aipatu dugun bezala, nolabaiteko osagarritasunean jartzen ditu ETBren bi kanalak. TVErekin gertatu bezala (kasu horretan Kirolan, Fikzioan eta Kulturaren ematen da konplementaritatea), kanal batek sakatzen dituen generoak ez ditu besteak gehiegi erabiltzen. Bada, antzerako zerbait gertatzen da ETBekin, esate baterako, Kirolarekin eta Fikzioarekin.

ETB-1en kasuan, Kirolaren aldeko apustua egiten da eta bigarren kanalak ez du, kirol saio informatiboez gain inolako erretransmisiorik pantailaratzen. Paretsu gertatzen da Haur/Gazteentzako [8](#) programazioarekin. Eta maila apalagoan Miszelanearekin eta Musikarekin.

ETB-2ri tokatzen zaio Fikzioaz gogor jokatzera eta Informazioan edukitzea elementu indartsu bat, lehen kanalak ere aprobeztatuko duena, bestalde. Infoshowak ere sarritan pantailaratzen dira gaztelerazko kanalean.

Bestalde, biei dagokie Kulturaz eta Miszelaneaz baliatzea ahalik eta ikus-entzule gehien eskuratzeko. Modu beretsuan, portzentualki oso apal ibili arren, ETBren kanal bietan ikus daitezke Lehiaketak.

eskazionalitate marka. Alegia, urteko lehen sei hilabete horietan ugariagoak izan daitezkeen programen presentzia gero, udan eta udazkenean, egongo ez dena. ETB-1en eta ETB-2ren arteko genero nagusien konparaketa (egun osoko emisio orduen portzentaia) Aipatu dugun ETB-1en eta ETB-2ren arteko "paper banaketa", agian, areagotu egiten da prime-timean zeren eta ordu horietan Informazioak azpimarratu egiten du bere lekua ETB- 2n eta Fikzioak distantzia mantentzen du euskarazko kanalarekiko. Infoshowa bigarren kanalaren esku uzten den generoa da, eta ondo erabiltzen du eguneko ordu horietan. Bestalde, Kirolak ETB-1en esku segitzen du. Lehen ere esan dugunera itzuliz, ETB-2 hurbilago dago konbentzionala eta lehiakorra izan gura duen kanalaren prototipotik eta bereziki prime-timean. Audientzia eskuratzeko borrokarako prest dago. Aldiz, ETB-1 bigarren kanalak erabiliko ez dituen xake piezaz (euskarazko kirol erretransmisioak, esatebaterako) baliatuko da bere parrila osatzeko. Ezingo da gainontzeko kanalekin aurrez aurrekoetan sartu, baina bere funtzioa betetzen du.

4. Konklusioa gisa

Amaitzeko, Estatu espainiarreko telebistagintzan kate pribatuen etorrerak ekarritako aldaketak erreparatuko ditugu labur-labur. Bereziki egun osoko parrilak eta gaueko ordutegiak erabiliko ditugu konparazioetarako. Lehen ere egin dugun bezala, Euskal Telebistaren bi kanalen azterketan sakonduko dugu gehixeago.

-Espektakularizaziorako joera nagusitzen da telebista programa guztietan. Epe laburreko errentabilitatea

bilatzen da rating puntu gehien lortuko dituzten programak pantailaratu.

-1993-1997 bosturtekoan fikzioa nagusi da kanal guztietan, baina bereziki pribatuetan. Hauen eraginez hamar ordutik ia lau pelikulei eta seriei dedikatuak dira. Aldi berean, egungo programazio estrategiek elkar-kutsatzearen joera erakutsi dute: pribatuek modan jarri dituzte Miszelaneak, aldiz publikoek albistegiak birbalio izana lepora dakioko.

-Mimetismoa soma daiteke nonahi parrilak eraikitzerakoan. Entretenigarrien zentralitatea eta espektakularizazioa programa mota guztietara zabaldu da. Ikus-entzule gehien eskuratzea helburu ia bakarra denean, programen arteko mugak desagertu egiten dira. Bi kanal dituzten kateetan kanal batek bestearen osagarri papera jokatu du.

-Euskal Telebistaren kasuan, bere lehen kanaletik hasiz, modek ez dute eragin itzelik eduki generokako denbora banaketan eta bi gehi hiru ditu bere parrilaren oinarriak: Fikzioa eta Kirola nagusi eta atzetik datoz Miszelanea, Informazioa eta Kultura. Prime-timean gora egiten du Kirolak, eta apur bat Informazioak eta Miszelaneak. Behera Kulturak eta bestelakoak. Aipatuetatik at dauden generoek ez dute ia lekurik emisio orduetan.

-ETB-2k ere hainbat berezitasun ditu arren, hala ere, Estatu espainiarreko gainontzeko telebistekin ba du elementu mankomuna: Fikzioaren garrantzia. Horrek bigarren planoan uzten ditu Kultura, Informazioa eta Miszelanea. Prime-timeari dagokionez, Fikzioak, konparatiboki, behera egiten badu, ondo kokatzen da, hurrenez hurren datozen generoen denbora bikoitza lortuz. Informazioa, gaueko orduetan, osasuntsu dagoen generoa da. Miszelanea eta Infoshowa portzentualki ondo mantentzen dira ere. Prime-timea eta egun osokoa konparatuz: Fikzioak pisu apurtxo bat galtzen du iluntzean eta Informazioari pasatzen dio denbora hori, Miszelanea eta Infoshowa ondo kokatuta daude gaueko parrilan.

-Euskal Telebistaren kanal bien arteko harremanaz esan, ETB-1ek Kirola beretzat mantentzen duela beretzat eta beste generoen konbinaketa bat erabiltzen duela bere eguneroko programa eskaintza osatzeko. Aldiz ETB-2k telebista konbentzionalagoen estilora Fikzioa eta Miszelanea eta Infoshowa erabiliko dituela audientzia erakartzeko. Kultura eta Informazioa bultzatzea du, beste kanaletan ez bezala, originaltasun elementua. Orohar, Lehiakorra eta konpetitiboa da.

Azken lerro hauek, nola ez, aldakorra den telebistagintzaren munduan gertatzen ari direneta zabalik egon beharra aipatzeko erabiliko ditugu. Telebista hertziarrean programazio estrategietan suertatzen ari diren aldaketak txiki geratuko dira aurki teknologia berrien erabilera (satelitea, kablea eta abarrak) orokortzen denean. Gero eta indar gehiago duten teknologia horien bidez programa eskaintza biderkatu egiten da eta asko aldatzen ari da "programazio parrila" kontzeptua bera ere.

Notak

1. Euskal Telebistaren programazioari buruzkoa idatzi ahal izateko ezinbestekoa izan da Rebecka Garairen laguntza.

2. 1989an sortu zen Euromonitor, Frantzia, Italia, Erresuma Batua, Alemania eta Estatu Espainiarreko telebistagintzaren behatoki gisa. Bere helburuen artean dago "...bost herrialdeotako kanale nagusien programazio estrategiak modu sistematizatu eta gaurkotuan eskeintzea".

3. Telebista audientzien ikerketan aritzen den multinazional honek urtero argitaratzen duen txostenean oinarritu gara generoen araberako programazioaren azterketan. Sofres A.M.koek hamairu genero desberdin zehazten dituzte: Erlizjioa, Kultura, Informazioa, Miszelanea, Infoshowa, Lehiaketa, Kirola, Zezenketa, Musikala, Fikzioa, Salmenta saioa, Kodifikatzeke eta Bestelakoa.

4. Gure ustez, Peiróren sailkapena gehiago xehetuz, autonomikoen artean badira, bigarren kanala dutenak, eta horiek esparru mugatuago horretan osagarri lana betetzen dute. Harreman hori legoke TV3 eta C33, ETB-1 eta ETB-2, C9 eta N9 eta, azkenik, Canal Sur eta bere bigarren kanalaren artean.

5. Kanal bien funtzioak eta harremanetan sakontzeko ikus 1992aren ekainan, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak idatzi zuen Euskal Telebista Informe (faksimila)

6. Zalantzarik ez dago ETB 1en eta 2ren arteko erlazioetan eta bakoitzak jokatzeko duen paper sozialaren definizioan faktore askok eragina dutela. Esaniko desberdintasun politiko-filosofikoaz, lingüistikoaz eta demografikoaz gain ekonomikoak, publizitarioak, produktiboak eta komertzialak ere badaude, besteak beste.

7. Hego Euskal Herrian TV Eren eta ETBren binaz gain Antena 3, Tele 5 eta Canal + enak sintonizatu daitezke. Azken honek ordu gutxi batzuk ditu seinale deskodifikatuan. Gure azterketatik kanpo gelditzen dira Estatu frantziarretik jasotzeko emisioak, telebista lokalak zein satelitez edo kablez jasotzekoak.

8. Orain arte erabili dugun sailkapenean Haur/Gazteentzako generoa ikusi ez dugun arren, Sofres A.M.-k lehen erabiltzen zuten programen sailkapenez baliatuz badakigu genero horrek 1996an %20,6a eta 1997an %17,1a zuela ETB-1en eta ezer ez bigarren kanalean.

Erreferentzia bibliografikoak

Artikuluaren erabilitakoak:

Eastman, Susan Tyler eta Douglas A. Ferguson (1997, bosgarren edizioa): *Broadcast/Cable Programming*. Belmont: Wadsworth. Kultura Saila.

Eusko Jaurlaritzak (1992): Euskal Telebista Informe. 1992. (faksimila)

Peiró, Mamen (1998): *Evolución del prime-time televisivo en Cataluña: 1990-1995*. 1998. Universitat Autònoma de Barcelona. Doktoradutza tesia (faksimila).

Prado, Emili (1992): "Tendencias internacionales de programación televisiva", *Telos*, 1992, pp.66-71.

Prado, Emili, A. Huertas eta J.J. Perona (1992): "España: nuevos modelos de programación", *Telos*, 1992, pp. 72-84.

Sofres, A.M. (1993, 1994, 1995, 1996 eta 1997): *Anuario de Audiencias de Televisión*. Madril.

Erreferentzia orokorrak:

Alvarez Monzoncillo, Jose Maria. (1997): *Imágenes de pago*. Madril: Fragua.

Blum, R. eta Lindheim, R. (1989): *Programación de las cadenas de televisión en horario de máxima audiencia..* Madril: IORTV.

Castilla, Manu. (1996): "Análisis cualitativos de audiencia" en los XV-UPV-EHUko Udako Ikastaroen barruan La investigación de audiencia y de programación y el futuro de la TV izeneko kursoaren barruan. (faksimila)

Chibeau, Edmond E. (1996): *Television Programming And The 500 Channel Universe: The Influence of Multiple Conduits On the Strategies of Moving Picture, News, And Entertainment Programmers*. Northwestern University. Doktoradutza tesia. (faksimila)

E.I.T.B. (1997): *Euskal Irrati Telebista 1982-1997*. Iurreta: EITB.

G.E.C.A. (1997 eta 1998): *Anuario de la televisión*. Madril: Geca

Matelski, Marilyn (1992): *Programación diurna de televisión..* Madril: IORTV.

Vaca, Ricardo. (1997): *Quien manda en el mando*. Madril: Visor.

Zenit Media (1998): *Los medios en España y Portugal*. 1997. Madrid.

ZZ.AA. (1991): *La televisión que viene*. Leioa: UPV-EHU.

ZZ.AA. (1992): *Innovaciones en programas de radio y televisión*. Leioa: UPV-EHU.

ZZ.AA. (1993): *Audiencia y Programación*. Valencia: RTVV.